



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 19a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Justizia fiskalaren arloko politika orokorrari eta egungo desoreka zuzentzeko neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen lehiakortasuna hobetzeko politika orokorrari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen politika fiskalari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako pediatria-arretako ereduari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegiturei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, etxebizitza babestuen arloko politika orokorrari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegituren gaineko industrien inguruko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bipil errefusatzen duela haur batek pairatutako eraso transfoboa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Gidariaren jarraipenerako Batzordeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Ten Brinke enpresak Superser zenaren lursailtan esleitu zitzaion garapenari uko egiteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, 2019an onetsitako Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen erregelamenduzko garapenari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (10. or.).

- Galdera, Corona Test Nafarroa aplikazioari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Toki Azpiegiturei buruzko Planean erreserba-obra jasotzeari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 114 sendagile-lanposturen deialdiei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, terrorismo abertzale sozialistarekin zerikusia duen memoria-guneak onesteari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Urnizako Jaurerriari (Erroibar) buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, udalen eta Nasuvinsaren arteko lankidetzaren sistemaren bidez garatuko diren hirigintza-jarduketei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzaren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egiaztagiri iragankorraren bidez aldi baterako jarduten duten irakasleei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, enplegu inklusiboko programei buruzkoa. Isabel Aranburu Bergua andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) kudeaketa planaren finantzaketari eta gastuei buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren Administrazio Elektronikoaren Batzordearen arauak (18. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Justizia fiskalaren arloko politika orokorrari eta egungo desoreka zuzentzeko neurriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko interpelazioa, Justizia fiskalaren arloko politika orokorrari eta egungo desoreka zuzentzeko neurriei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, 2021eko otsailaren 25erako aurreikusita dagoen Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadin.

Azken 20 urteotan zerga ezberdinen diru-bilketak bilakaera larria izan du, desoreka gogorra sor-

teraino, lan-errenten kalterako eta enpresa-etekinen mesede oso handirako.

PFEZaren diru-bilketa igaro da 2000n diru-sarrerara publiko guztien % 29,7 izatetik 2020an % 42,4 izatera. Sozietateen gaineko zergaren diru-bilketa, berriz, 2000n guztizkoaren % 13,4 izatetik igaro da 2020an bakarrik % 7,2 izatera.

Hogei urte horietan, PFEZagatiko diru-bilketa 2000ko 629,6 milioietatik 2020ko 1.527,8etara igo da. Alabaina, Sozietateen gaineko Zergaren diru-bilketa, ez igo ez ezik, are jaitsi ere egin zen, 2000ko 285 milioietatik 2020ko 260,3 milioietara.

Diru-bilketa fiskalari PFEZaren bidetik eginiko ekarpenaren (gehiena, lan errentak) eta Sozietateen gaineko Zergaren bidetik (enpresa-etekinak) egindakoaren arteko desoreka gero eta handiagoa, bere horretantxe, bidegabekeria fiskal agerikerikoa da.

Horiek horrela, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistotik Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa aurkezten dugu, justizia fiskalaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa eta, kasua bada, egungo desoreka zuzentze aldera hartuko dituen neurriei buruzkoa.

Iruñean, 2021eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen lehiakortasuna hobetzeko politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen lehiakortasuna hobetzeko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

COVID-19aren pandemiaren ondorioz dugun egoera ekonomikoa eta soziala, bai eta Nafarroako Foru Komunitateak lehiakortasunaren aldetik duen abiapuntua ere, alderdi gakoetako bat izan behar dira, lehentasun handienekoak diren politika publikoak ebaluatzerakoan eta epe ertain eta luzerakoak taxutzean.

Hori horrela, interpelazioa aurkezten zaio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Foru Komunitatearen lehiakortasuna hobetzeko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen politika fiskalari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen politika fiskalari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Foru Komunitateak, tributu- eta zerga-ahalmen propioekin, jadanik hainbat urte daramatza Espainiako fiskalitate zamatsuenetako batekin; hori dela-eta, lehentasunezkoa da pandemiaren ondoriozko krisiak ekarri dugun egoera berriko politika fiskalari buruz eztabaidatzea.

Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitatearen politika fiskalari buruzko interpelazioa aurkezten zaio Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Interpelazioa, Nafarroako pediatria-arretako ereduari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako pediatria-arretako ereduari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Nafarroako pediatria-arretako ereduari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Oinarrizko Osasun Laguntzako pediatriako arreta haurrentzako funtsezko zerbitzua da. Pediatrian gero eta lanpostu huts gehiago daude bete gabe, batez ere landa eremuan. Horregatik, jakin nahi dugu zein plan darabilen Nafarroako Gobernuak Nafarroako haurrentzako kalitatezko laguntza pediatrikoa ekitatez bermatzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegiturei buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegiturei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, interpelazioa aurkezten du, Nafarroako kirol-azpiegiturei dagoenaz Nafarroako Gobernuak garatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Interpelazioa, etxebizitza babestuaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkezturiko interpelazioa, etxebizitza babestuaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, etxebizitza babestuaren arloko politika orokorrari eta, zehazki, Etxebizitza Sozialesen Nafarroako Funttsaren programei buruzkoa.

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegituren gaineko industrien inguruko politika orokorrari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa Nafarroako kirol-azpiegituren gaineko industrien inguruko politika

orokorrari buruzkoa zen, eta 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/ITP-00007).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bipil errefusatzeko duela haur batek pairatutako eraso transfoboa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bipil errefusatzeko duela Iruñerrian haur batek pairatutako eraso transfoboa eta bere babesa eskaintzen die haurrari eta haren familiari.

2. Nafarroako Parlamentuak indarkeria edo eraso sexista edo LGTBIfobiko oro errefusatzeko du, eta bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkie inoiz jazarpena edo ikara pairatu dutenei.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du herritargo aske eta anitza sustatzen duten politika publikoak lantzeko eta bultzatzeko duen konpromisoa eta, aldi berean, hori garatzeko zerbitzuak eta baliabideak ahalbidetzen jarraitzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du, sexu- eta genero- aniztasunaren inguruko eraso horiek desagerrarazte aldera, eta LGTBI+ komunitatearen segurtasuna hobetze aldera, inguru guztietan”. (10-20/DEC-00005).

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Gidariaren jarraipenerako Batzordeari buruzkoa.*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Gidariaren jarraipenerako Batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2020ko urriaren 28an harturiko erabaki bidez, hiri erabilerarako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Gidariaren jarraipenerako Batzordea eratu zen.

2019ko ekainaren 6an, aipatu jarraipen-batzordearen kideak hautatuak izan aurretik, Ega Bizirik elkarteak batzorde horren kide izatea eskatu zion Departamentuari. Batzordearen kide hautatua izateko ekimena aldezteko, Urbizi Plataformaren idazki bat erantsi zen, zeinetan elkarte-plataformaren izenean eskatzen baitzen Ega Bizirik izan zedin haien guztien ordezkari gisa kide izendatua. Urbizi Plataforman parte hartzen dute ibaien defentsarako hainbat elkartek (aipaturiko Ega Bizirik horretaz gain, Arga bizirik, Zain-Zaraitzu Ibaia Naturala, Yesa+No/Lanak Gelditu eta Ubagua Berpiztu dira partaide).

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Ega Bizirik elkarte zergatik ez zen hautatua izan hiri erabilerarako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Gidariaren jarraipenerako Batzordearen kide izateko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordeari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Batzordean ahoz erantzun dakion.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer pauso emateko asmoa du, eta noiz, Ega Bizirik elkarteak aurkeztutako kexa dela-eta Nafarroako Arartekoak eginiko gomen-dioaren ondoren, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Eremu Bereziko gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa, ikusirik Departamentuak eratzeko hori dela-eta izandako utzikeria?

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Ten Brinke enpresak Superser zenaren lursailetan esleitu zitzaion garapenari uko egiteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Ten Brinke enpresak Superser zenaren lursailetan esleitu zitzaion garapenari uko egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ten Brinke enpresak uko egin dio Superser zenaren lursailetan esleitu zitzaion garapenari. Horri buruz, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

Zein izanen dira uko horren ondorio ekonomi-koak eta Nafarroako Gobernuak asmotan dituen hurrengo ekintzak?

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2019an onetsitako Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen erregelamenduzko garapenari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, 2019an onetsitako Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen erregelamenduzko garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Kultura eta Kiroleko Batzordean ahoz erantzun dezan:

2019an onetsitako Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Legearen erregelamenduzko garapena noizko dago aurreikusita?

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Corona Test Nafarroa aplikazioari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Corona Test Nafarroa aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen duzu Corona Test Navarra aplikazioaren funtzionamendua?

Iruñean, 2021eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Toki Azpiegiturei buruzko Planean erreserba-obrak jasotzeari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Toki Azpiegiturei buruzko Planean erreserba-obrak jasotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ba al du asmorik 2021. urtean zehar Toki Azpiegituren 2017-2019 Planean erreserba-obrak jasotzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Europar Batasunak bultzatutako ekimena da PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programa, eta PRAN-Antibiotikoen aurkako Erresistentziari aurre egiteko Plan Nazionalean sartuta dago. Nafarroan, 2018an hasi zen PROA delakoaren ezarpena Oinarrizko Osasun Laguntzan.

PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programa zer emaitza ari da izaten Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 114 sendagile-lanposturen deialdiei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 114 sendagile-lanposturen deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Osasun Departamentuak bi deialdi onetsi ditu, oposizio-lehiaketa bidez guztira 114 sendagile-postu betetzekoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemari, eta aldi baterako kontratazioz nahiz aldi baterako barne-sustapenez lanpostu horietan jarduteko izangaien zerrendak egitekoak.

Alde batetik, 107 postu deitzen dira: Horietatik 69, Oinarrizko Osasun Laguntzako ekipo-sendagilearenak; 26, Larrialdi zerbitzu normaleko sendagilearenak; eta 12, Larrialdi zerbitzu berezikoarenak. Bestalde, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Larrialdietako sendagile albokoaren 7 postu. Bi deialdi horietarako probak ekainaren 21ean hasiko dira.

Ziurta al dezake Nafarroako Gobernuak euskara merezimendu bezala baloratuko dela deialdi horietan? Ala, aitzitik, euskara-ezagutza froga dezaketen pertsonak diskriminatuak izaten segituzekoak dira ingelesa, frantsesa edo alemana frogatzen dutenen aldean?

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, terrorismo abertzale sozialistarekin zerikusia duen memoria-guneak onesteari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, terrorismo abertzale sozialistarekin zerikusia duen memoria-guneak onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak ba al du asmorik terrorismo abertzale sozialistarekin zerikusia (ETA V, ETA PM, CCAA, kale borroka eta abar) duen memoria-guneren bat erabakitzeke? Zer tokitan? Gutxi gorabehera zer datatan erabakiko dela uste da?

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Urnizako Jaurerriari (Erroibar) buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Urnizako Jaurerriari (Erroibar).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer egoeratan dagoen Urnizako Jaurerria (Erroibar). Nafarroako Gobernuak okupazio ilegalararen kasurako aurreikusitako ekintzak. Kasu honetan, noiz esku hartuko da?

Iruñean, 2021eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, udalen eta Nasuvinsaren arteko lankidetzaren bidez garatuko diren hirigintza-jarduketari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, udalen eta Nasuvinsaren arteko lankidetzaren bidez garatuko diren hirigintza-jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek eginiko galderari erantzunez (espediente-zenbakia: 10-20/PES-00193), Nafarroako Gobernuak honako hau zehaztu zuen:

“Nasuvinsak aurreikusita dauka beste toki entitate batzuekin hitzarmenak sinatzea, 'lankidetz' sistemaren bidez gara daitezten. Hain zuzen, gaur egun badira zenbait hirigintza-ekimen jada udalen

eta Nasuvinsaren artean aztertu direnak sistema horren bitartez, eta beren garapen-akordioak noiz sinatuko zain daude”.

Aurrekoa ikusirik, foru parlamentari honek haxe jakin nahi du:

- Jadanik sinaturiko edo aztertuak bai baina sinatzeko dauden jarduketek zerrenda, udalen eta Nasuvinsaren arteko “lankidetz” sistemaren bitartekoak, eta hirigintza-ekimenen mota (etxebizitza-urbanizazioa, industrialde-urbanizazioa edo bestelako jarduketak).

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikoari buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

lazio urriaren 15ean parlamentari honek eginiko galderak lorturiko erantzuna ikusirik (galderaren espediente-zenbakia: 10-20/PES-00263), honako hau jakin nahi du:

1. Zer gastu publiko jarri da guztira (Nafarroako aurrekontu orokorretatik, enpresa publikoetatik eta toki entitateetatik) Espainiako Itzulia egiteko?

2. Entitate publikoek (Nafarroako Gobernuak, enpresa publikoek eta toki entitateek) zenbateko diru-sarrerak izan dituzte guztira?

3. Egin al du Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikorik? Baiezkoan, horren kopia eskatzen dugu.

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, atzerriko hizkuntzaren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egiaztagiri iragankorraren bidez aldi baterako jarduten duten irakasleei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, atzerriko hizkuntzaren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egiaztagiri iragankorraren bidez aldi baterako jarduten duten irakasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren elehun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Azken sei ikasturteetan, zenbat irakaslek bete dituzte, aldi baterako, atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak, apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuko lehenbiziko xedapen iragankorrak aurreikusten duen egiaztagiri iragankorraren bidez?

2. Denbora horretan, horietako zenbatek esku-ratu dituzte hizkuntza-eskakizunak lortzeko prozedura arautzen duen martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduak behartzen dituen titulazio ofizialak?

3. Hezkuntza Departamentuak egin al du inola-ko ebaluaziorik, aztertze aldera nolako eraginkortasuna izan duten, aginduzkoa den C1 titulazioaren lorpena sustatzeari dagokionez, irakasleen prestakuntzara bideratutako ahaleginak eta egiaztagiri iragankorrek?

4. Neurri iragankor horiek ikasleen gaitasunean eta haien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan izandako eragina neurtu al da inola?

5. Arabide iragankor hori aurtengo abuztuaren 31n amaitzen dela kontuan hartuta, zein da Hezkuntza Departamentuaren asmoa?

Iruñean, 2021eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Osasun Mentalaren Planak eta osasun mentaleko oroitidazkiek emandako datuak ikusirik, ba al da arrazoirik, esplikatzeko duenik Elikadura-jokabidearen Nahasteen Helduentzako Programaren jarduerak 2015etik 2019ra bitartean izandako jaitziera nabarmen eta etengabea (kontsultetan, paziente kopuruan eta ospitalerazteetan)?

2. Zein da Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programan 2020an artatutako pertsonen bilakera, bai paziente kopuruari bai kontsultei eta ospitalerazteei dagokienez?

1. Pandemia hasi zenetik, zenbat paziente berri bideratu dira programa horretara? Pandemiaren zehar izan al du goera nabarmenik elikadura-jokabidearen nahastea duten pazienteen kopuruak?

2. Zein izan da pandemian jarraitu den arreta protokoloa, bai paziente berrientzat bai programan lehendik zeudenen jarraipenerako?

3. Zer maiztasunez egin dira bakarkako eta familiakako kontsultak? Presentzialak ala telefono bidezkoak izan dira? Departamentuaren ustez, behar adina baliabide jarri al dira paziente horiek behar bezala artatzeko?

4. Talde-programa mantendu al da? Bestelako mekanismorik ezarri al da?

5. Gaur egun indarrean den Osasun Mentaleko 2019-2023 aldirako planaren 18. helburua da legegintzaldi honetan berrantolatzea elikadura-jokabidearen nahastea duten pertsonen arreta, eta bi jarduera ildo zehazten dira, 2021eko lehen seihilekotik aurrera betetzekoak. Zer aurrerapauso eman dira jarduera ildo horietan, zehazki eguneko ospitaleko Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programa anbulatorioa-II osasun mentaleko zentroetan integratzeari dagokionez?

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, enplegu inklusiboko programei buruzkoa.*ISABEL ARANBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aranburu Bergua andreak aurkezturiko galdera, enplegu inklusiboko programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

2021erako Aurrekontuetan sartuta dago 950001 96100 4819 241110 partida, "Enplegu inklusiboko programak. Konferentzia sektoriala" izenekoa, 600.000 euroko zuzkidurarekin.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zertan dautza partida horren bidez finantzatu nahi diren enplegu inklusiboko programak?

Zer aurreikuspen du Eskubide Sozialetako Departamentuak horien kudeaketarako?

Zer epe darabil Eskubide Sozialetako Departamentuak horiek abiarazteko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa zen, eta

2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PES-00065).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) kudeaketa planaren finantzaketari eta gastuei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) kudeaketa planaren finantzaketari eta gastuei

buruzkoa zen, eta 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PES-00066).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren Administrazio Elektronikoaren Batzordearen arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Gaur egun, Nafarroako Parlamentua lanean ari da bere barne-funtzionamendua espediente eta dokumentu elektronikoari egokitzen, bai eta parlamentariak legebiltzarrarekiko harremana telematikoki egiteari bultzada ematen ere, urriaren 1eko 39/2015 legeari heldurik, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen gainekoari, eta urriaren 1eko 40/2015 legeari, sektore publikoaren araubide juridikoaren gainekoari.

Barne-eraldaketako prozesu horrekin, iragate bat eginen da paperezko agirien eta transakzio presentzialen bitarteko administrazio-eredu tradizionaletik administrazio elektronikoaren eta harreman telematikoaren eredura, eta horrek eragin transbertsala izanen du Parlamentuaren arlo eta zerbitzu guztietan.

Gizartean edonolako elkarreragin ekonomiko, sozial eta politikorako soluzio elektronikoaren pixkanakako ezarpenak oinarriak ipintzen ditu Nafarroako Parlamentuaren kudeatze-ereduaren eraldaketa horretarako. Azken hilabeteotan jardun publiko osoa baldintzatu duen egoera sanitario bereziak halaber nabarmenarazten du legebiltzarraren funtzionamendua egokitu beharra, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten soluzio guztiak baliatuz.

Eraldaketa-prozesu horrek parlamentu-kudeaketaren arlo guztiak ukitzen ditu; ikuspegi teknologiko hutsetik ez ezik, baita ikuspegi juridikotik eta barne-antolamendukotik ere. Hori dela-eta, egokitzat jo da eraldaketa-prozesuaren koordinazio eta bultzadaren ardura ematea diziplinaniztun batzorde bati, zeinak bere baitan bilduko baititu proiektuaren arrakasta bermatzeko beharrezkoak diren ikusmolde eta ezagutza ezberdinak

Nafarroako Parlamentuak jada eginak dauzka barne-aldaketako prozesu horren plangintzarako beharrezkoak diren urratsak, arloan espezializatu-

riko kontsultoretza-enpresa batekin lankidetzan landutako ibilbide-orri baten bidez, jarraibidetzat erabiliko dena batzordearen ardurapean uzten diren helburuak koordinatzeko.

Horregatik, bermatzearen eraldaketa-proiektu hori behar bezala kudeatzen dela eta Parlamentuaren antolakunde osoan eragin transbertsala izanen duela, Parlamentuko Mahaiak ERABAKI DU:

1. Nafarroako Parlamentuaren Administrazio Elektronikoaren Batzordeak izanen dituen arauak onestea. Honakoak dira:

"Lehena. Eraketa.

Administrazio Elektronikoaren Batzordea eratzten da, zeinak eginkizun hauek izanen baititu:

- Ibilbide-orriaren betearazpenaz arduratzea;
- Horren arrakasta-adierazleen bilakaera ebaluatzea;
- Ibilbide-orria osatzen duten proiektu ezberdinak exekutatzeko lanetan sor daitezkeen desadostasunak ebaztea;
- Ibilbide-orrian aurreikusitako proiektuak une bakoitzeko premien arabera egokitu edo birplanteatzea, haien exekuzioan sorturiko balizko desbideraketei doitzeko;
- Erabakia hartzea ustekabeko premia edo zirkunstantzien eraginez ibilbide-orria berrikusi edo birdefinitzearen komenigarritasunaz, halako moduz non proiektu berriak jasoko edo lehenagotikoak bazter utziko bailirateke;
- Administrazio elektronikoa ezartzeko proiektu bakoitzaren exekuzioa arlo bati esleitzea;
- Ibilbide-orrian aurreikusitako ekintza bakoitzaren ezarpenerako beharrezkoak diren giza baliabideen esleipena proposatzea;
- Mahaiari helaraztea ibilbide-orriaren exekuzioa bermatzeko urtez urte beharrezkoak diren aurrekontu-eskakizunak;

– Komeni denean, kanpo-zerbitzu aproposen kontratazioari bultzada ematea, beharrezkoak diren lizitazio-proposamenak Mahaiari helarazi ondoren;

– Esleituriko jarduketa bakoitzaren exekuzioa kontrolatu eta ikuskatzea, horretarako jasorik exekuzioaz arduraturiko arloak edo pertsonak aurkeztu beharreko txostenak;

– Aldaketaren kudeaketarako jarduketak hasi eta koordinatzea, dokumentu elektronikoaren ezarpenerako beharrezkoak direnak.

– Parlamentuko Mahaiari urtero kontuak ematea ibilbide-orriaren betetzeari buruz.

Bigarrena. Osaera.

Administrazio Elektronikoaren Batzordearen kide izanen dira:

– Parlamentuko Legelari Nagusia

– Zerbitzu Orokorretako burua

– Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua

– Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua

– Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua

– Zerbitzu Juridikoetako legelari bat

– Sistema informatikoetako teknikari bat

– Administrazio kudeaketako teknikari bat

Zilegi izanen da Parlamentuko Mahaiaren erabakiz Batzordearen osaera aldatzea; batez ere, hori erakundearen organigraman izandako balizko aldaketei egokitu beharra dagoenean.

Hirugarrena. Erabakiak nola hartu.

Erabakiak hartuko dira batzordekideen gehien-goaren botoaz. Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruaren kasu berezian, zilegi izanen du batzordearen erabaki-hartzean parte hartetik abstenitzea, bere geroko kontu-hartze eginkizuna babestearren.

Laugarrena. Funtzionamendua.

Administrazio Elektronikoaren Batzordearen lehendakaria Legelari Nagusia izanen da, eta idazkari gisa batzordekideetako bat izendatuko du. Azken horrek bilera bakoitzeko gai-zerrenda idatzi eta batzordekideei bidaliko die. Bileraren amaieran, erabakiak akta batean jasoko ditu eta, Batzordeko lehendakariaren oniritzia duela, batzordekideei helaraziko dizkie, geroko bileretan haien jarraipena egiteko, bai eta proiektu ezberdinen ardura duten pertsonen edo lantaldeen ere, jakinaren gainean egon daitezen.

Administrazio Elektronikoaren Batzordeko kideek ezin izanen diete hirugarrenei eskuordetu bileretara joateko betebeharra, zeina nahitaezkoa baita.

Administrazio Elektronikoaren Batzordeko kideek zilegi izanen dute beren alorreko teknika-riek lagun eginda parte hartzea, komenigarria iruditzen baldin bazaie.

Bosgarrena. Bileren maiztasuna.

Administrazio Elektronikoaren Batzordeak 2 hilabete behin egiten du bilera arrunta; eta, lehendakariak bilerarako deia egiten duen bakoitzean, bilera berezia egiten du".

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

